

ja,
doike...



erran,
solastatu...

bertze,
aitzina...

BAZTANGO MINTZOA ERABILTZEKO GIDA



BAZTANGO
UDALA



BAZTANGO MINTZOA ERABILTZEKO GIDA

Egilea: MAITE LAKAR IRAIZOTZ
Argitaratzailea: BAZTANGO UDALA
Lehen argitaraldia: Baztanen, 2013ko urrian

Diseinua eta maketazioa: Ttipi-Ttapa
Inprimategia: Gráficas Iratxe

LG: NA 1562-2013



| | |
|--------------------------------------------------------|----------|
| 1. Aitzinsolasa | 5. or. |
| 2. Baztango mintzoaren ezaugarriak | 7. or. |
| 2.1 Fonetika-fonologia | 10. or. |
| 2.2 Morfologia | 15. or. |
| 2.3 Sintaxia | 16. or. |
| 2.4 Lexikoa | 16. or. |
| 3. Euskalkiak eta euskara batua | 23. or. |
| 3.1 Nafarroako euskalkien estatusa eta erabilera | 23. orr. |
| 3.2 Euskaltzaindiaren adierazpenak | 28. or. |
| 3.2.1 Administrazioa | 29. or. |
| 3.2.2 Komunikabideak | 30. or. |
| 3.2.3 Hezkuntza | 30. or. |
| 3.3 Ikastetxeko plana | 31. or. |
| 3.3.1 Gutxieneko irizpideak | 34. or. |
| 3.3.2 Nora jo zailantzen aitzinean | 35. or. |
| 3.3.2.1 Nafarrerazko lexikoa | 36. or. |
| 3.3.2.2 Bertzelako materiala | 58. or. |
| 4. Bibliografia | 59. or. |

1. AITZINSOLASA

Eskuetan duzun gida honen helburu nagusia Baztango eskoletan egunerokoan bertako mintzamoldea erabiltzeko orduan sortzen diren zalantzak argitzea da. Hala ere, horrek ez du erran nahi irakaskuntzatik kanpoko esparruetan ezin erabil daitekeenik, azken batean, administrazioan ari direnek, komunikabideetan aritzen direnek nahiz egunerokoan Baztango mintzoa erabili nahi dutenek ere hainbat zalantza eta uste oker izaten baitituzte. Izan ere, gauza jakina da edozein baztandarrek ahoz *erran, bertze, ongi, paratu, aditu...* erraten duela, baina idazterako orduan, anitzek uste dute zuzenagoa dela estandarrean hedatuago dauden formak erabiltzea: *esan, beste, ondo, jarri, entzun...*

Gizarte modernoetan hizkuntza gehienek dute eredu estandarra, eginkizun formaletan erabiltzeko batez ere: komunikabideetan, irakaskuntzan, administrazioan... Izan ere, gizarte moderno batek hizkuntza aldaera komun eta orokor bat behar du, edozein lekutan egonda ere, elkarri ulertu ahal izateko.

Gurean euskara batuak ahalbidetu du euskara etxeetatik atera eta gaur egun arte iristeaz gain, bertzelako esparruetara ere hedatzea. Hortaz, ezin da ukatu euskara batuak gure hizkuntzari egin dion ekarpena eta mesedea.

Hala ere, egia da euskara batuaren eraginez hizkuntzak batzen ari direla eta idatzian batez ere Baztango hizkera bigarren maila batean gelditu dela. Dena den garbi eduki behar dugu euskalkiak eta batua elkarren osagarri direla eta ez elkarren etsai.

Hori dela eta, gida honen bidez eskoletan nahiz bertzelako eremuetan idatzian bereziki sortzen diren zalantzak eta uste okerrak argitu nahi izan ditugu eta, bide batez, irizpide orokor bat proposatu, jendeak jakin dezan zer eta nola erabili egoera bakoitzean.

Euskaltzaindiak hainbat adierazpen egin ditu euskalkien gain eta horien arabera, argi gelditzen da eremua kontuan hartzen badugu (Euskal Herri osorako ari garen edo gure eskualderako), formaltasun maila aintzat hartzen badugu (konfiantza giroan ari garen, lagunartean) edota ahoz edo idatziz ari garen ikusita, modu batean edo bertzean aritu beharko dugula.

Tokian tokiko estandarra da Baztango mintzo ez formalaren eta euskara “batu” bezala ezagutzen dugun horren tarteko bidea; bertze hitz batzuetan, “Baztango euskara batua” litzateke tokian tokiko estandarra, lagunarteko girotik kanpo erabili beharreko hizketa modua.

Arestian errandakoez gainera, gida honetan Baztango mintzoaren ezaugarri nagusiak bildu ditugu, bertakoez nahiz kanpotik heldu direnek gure eskualdeko mintzoaren nondik norako nagusiak ezagut eta erabil ditzaten. Azpimarratu beharra dago ez dela beharrezkoa ezaugarri guztiak jakitea Baztango euskaraz aritzeko, nahikoa baita Baztango mintzoaren ezaugarri nagusi batzuk kontuan hartzea. Hala ere, aukera hau baliatu nahi izan dugu, gehiago sakondu nahi duenak eduki horiek eskura izateko.

1. AITZINSOLASA

Halaber, Baztango mintzo estandarra eskolan nahiz bertze esparrutan nola landu, nola erabili... ere azaldu nahi izan dugu. Era berean, horren osagarri, hainbat testu gehitu ditugu, norberak teorian errandakoa adibideekin ikusi eta hausnar dezan gai horren inguruan.


Ez genuke aipatu gabe utzi nahi horrelako giden beharra, anitz baitira jendeak dituen zalantzak eta uste okerrak. Euskarabideak 2011n egindako txostenak, adibidez, agerian uzten du euskalkiak gazteengan balio eta prestigio handia duela, identitarioa delako; hala ere, adinekoek baino gutxiago erabiltzen dute euskalkia. Gainera, gero eta gehiago nahasten dituzte batua eta euskalkia. Aitzitik, adinekoen ustez, haien euskara bigarren mailakoa da, baina haiek dira euskalkia gehien eta hobekien erabiltzen dutenak. Hori guztia ikusita, argi dago zerbait egin behar dela, eta hori da, hain zuzen, gure helburu nagusia.

Akitzeko, argi utzi nahi genuke gida hau egiteko hainbat argitalpen eta lan izan ditugula oinarri, ez dugula deus ere asmatu, handik eta hemendik bildutako edukiak baitira hemen labur-labur ageri diren guztiak. 2012ko urrian Lekarozen egin zen ikastaro bateko materialak bildu eta birmoldatu ditugu, denon eskura izateko saio haietan landutako edukiak.



1. AITZINSOLASA

Baztango mintzoaren ezaugarriak aztertzen hasi baino lehen, Santi Leonek idatzitako testu hau ekarri nahi izan dugu lerrootara, ezin hobeki biltzen baitu gida honen ideia nagusia eta funtsa. Dena dela, ohartarazi nahi genuke *ikastola* dioelarik D ereduaz ari dela eta ez ikastolez bakarrik.



2. BAZTANGO MINTZOAREN EZAUGARRIAK

Lehenik eta behin, behar-beharrezkoa iruditzen zaigu argi uztea **Baztango mintzoa ez dela euskalki bat**¹. Izan ere, Koldo Zuazok (2008) euskalkien sailkapen berria eta sailkapen hori biltzen duen mapa egin zituen; bertan aski ongi ikus daiteke Euskal Herrian gaur egun borts euskalki daudela: mendebalekoa, erdialdekoa, nafarra, nafar-lapurtarra eta zuberotarra.

Egia da Baztango mintzoa sailkatzeko orduan adituek zalantza ugari izan dituztela, batzuek erraten baitute nafar-lapurtarra dela, bertze batzuek nafarra... Koldo Zuazoren mapari begiratu gero, Baztan bi kolorez (laranja eta urdina) ageri dela ikusiko dugu eta horrek erran nahi du Baztanen erabiltzen den euskarak bi euskalkiren ezaugarriak dituela, hau da, **nafarraren eta nafar-lapurtarren tarteko hizkera** dela.

Zuazok berak azaltzen duen moduan, garai batean, baztandarrek harreman estua zuten mugaz bertaldekoekin eta horrek eragin zuzena zuen bertako euskararen. Gaur egun, berriz, bizimodua arras aldatu da, erraz mugitzen gara alde batetik bertzera, Nafarroan berean egiten dugu lan, ez dugu hainbertzeko harremanik Iparralderekin, merkatuak ere bere eragina galdu du... eta hori mintzatzeko moduan ere islatzen da. Adinekoen eta gazteen solasa baino ez da aditu behar belaunaldien arteko aldea ikusteko, adinekoen hizkerak gehiago jotzen baitu Lapurdi aldera gazteenak baino. Hortaz, agerikoa da hondar urteotan Baztango mintzoa nafar-lapurtarretik urruntzen eta “nafartzen” ari dela.

Era berean, Oronozko euskarak ere aldaketak izan ditu; izan ere, Oronozko euskarak Bidasokoarekin bat egiten zuen (oraindik ere adineko anitzen euskarak hala egiten du), baina bizimodu aldaketarekin batera, Oronozko jendeak gero eta gehiago jotzen du Baztan aldera, eskola Baztanen berean dute haur nahiz gazteek... Hori dela eta, gazteen hizkera gero eta “baztandarragoa” da, harremanak Baztanen berean baitituzte.

Bi adibide horiek garbi uzten dute hizkuntzak gauza biziak direla eta jendearen joan-etorriek, harremanek, eta abarrek eragin zuzena dutela hizkeran.

Hala ere, nahiz eta Baztango hamaborts herrietan ez den euskara bera egiten, batasun handia dago herri gehien artean. Basaburuko herrietan² eta Oronozen, bustidurak egiten dituzte³; gainerako herrietan, ordea, ahulagoa da bustidura, are gehiago mugatik hurbilen dauden herrietan. Baztangoizan⁴ eta Beartzunen ere, frantseseko mailegu gehiago erabiltzeaz gain, bigarren pertsona pluraleko adizkietan *duze* moduko formak idatzi egiten dituzte, gainerako herrietan, aldiz, *duze* erabiltzen dute. Arraioz erdibidean gelditzen den herria litzateke, Oronoz eta Baztango gainerako herrien artean baitago. Agerikoa da, hortaz, zenbat eta hegoalderago egin, hizkera “nafarragoa” izanen dugula; hori dela eta, Basaburuko herrietan nahiz Oronozen, erraterako, Amaiurren baino ezaugarri nafar gehiago aurkituko ditugu.

Arestian erran bezala, jarraian Baztango mintzoaren ezaugarri aipagarrienak ageri dira. Lehendabizi, ahoko hizkerari dagozkion ezaugarriak ikus daitezke 2.1 atalean, eta horren ondotik, hainbat transkripzio, teoriarik landutakoa modu praktikoan ikusteko. Hurrengo ataletan, berriz, bereziki idatziari dagozkion ezaugarriak ageri dira, nahiz horietako anitz mintzatzean ere erabiltzen diren.

1 Atal hau osatzeko, bertzeak bertze, Iñaki Caminoren (1998), Pello Salabururen (1984), Pello Salabururen eta Maite Lakarren (2005), Edu Zelaletaren (2008) eta Koldo Zuazoren (2008) lanak baliatu ditugu.

2 Basaburuko aldea Ziga, Aniz, Berroeta eta Almandoz herriek osatzen dute.

3 Bustidura deitzen zaio aitzinetik *i* ageri delarik, batez ere *n* eta *l* letrekin gertatzen den bilakaerari: *i + n = ñ / i + l = ll* (*giñun, ziñun, giñen...*).

4 Baztangoizako aldea Arizkun, Erratzu, Azpilkueta eta Amaiur herriek osatzen dute.



Euskalkiak eta azpie



Euskararen eremuren mugak 1850-1870 opean (L.-L. Bonaparte)



MENDEBALEKOA

- Soraldeko euskalkia
- Soraldeko euskalkia
- Soralde eta soraldeko euskalkien tarteko hizkera
- Mendebaleko eta erdialeko euskalkien tarteko hizkera

ERDIALEKOA

- Soraldeko euskalkia
- Erdialeko euskalkia
- Soralde eta erdialeko euskalkien tarteko hizkera
- Soraldeko euskalkia (erdialekoaren eta nafarroko tarteko hizkera)



NAFARRA

- Iparraldeko euskalkia
- Hegoaldeko euskalkia
- Erdialeko euskalkia
- Soraldeko euskalkia
- Buruak (mendebalekoen, erdialekoen eta nafarroko tarteko hizkera)
- Buruak (iparraldekoen, erdialekoen eta nafarroko tarteko hizkera)
- Auzok (iparraldeko nafarroko eta nafarroko tarteko hizkera)



NAFARRO-LAPURTARRA

- Soraldeko euskalkia
- Soraldeko euskalkia
- Soralde eta soraldeko euskalkien tarteko hizkera
- Nafarroa Garaia (erdialekoen eta nafarroko tarteko hizkera)
- Auzok (iparraldeko nafarroko eta nafarroko tarteko hizkera)



Euskararen giur egungo bost euskalkiak erakusten dira mapa honetan: mendebalekoa (Bizkaia, Araba iparraldean eta Gipuzkoako mendebaleko mintzatua), erdialekoa (Gipuzkoan eta Nafarroako mendebaleko mintzatua), nafarroa (Nafarroa gehiengoa mintzatua), nafarro-lapurterra (Lapurdi, Nafarroa Beherean, Zuberoako ipar-mendebaleko eta Nafarroako Luzaiden mintzatua) eta zuberotarra (Zuberoa eta Barioako aldetik batean mintzatua). Azken hamarkadotan galdu da ekialdeko nafarra, Zaraitzu eta Erroñkari ibarretan mintzatu zena.

Kolore tonalitate desberdinekin, berriz, euskalki horietan diren hamaka ezkizkalkiak agertzen dira: bi dira mendebalekoan, hiru erdialekoan, bi nafarro-lapurterrean eta lau nafarroan. Oso

homogeneoa da zuberotarra. Lerroen bidez, azkenik, tarteko hizkerak erakusten dira, hau da, euskalki biren edo gehiagoren ezaguerriak aldi berean duzuzterik. Nafarroako Aezkoa eta Burunda ibarretakoak dira denetan berezikiak hiru euskalkiren arteko lotura egiten dutenak. Oso hizkuntza berezia da euskara, ez baita ez latindarra ez indoeuroparra, inguruko guztiak bezala. Hartzekoa da bizirik iraun izana, hizkuntza txikia delako, eta oso handiak, berriz, haren ondoko frantsesa eta gaztelania. XVIII. mendeaz gero, gainera, bi horietatik ezarri dira Frantzia eta Espainiako estatu-hizkuntza, eta guztiak baztertu dira gainerakoak: katalana, bretoaia, alemana, okzitaniarra... Euskarari dagokionez, bereziki gogorra izan zen 1936-39 bitarteko Espainiako Gerra Zibila eta, haren

ondoren, 1975 arte iraun zuen Francoren diktadura militarra: erabat desagertzeko zorian egon zen. Hobera egin du azken hamarkadotan, nahiz eta Nafarroan eta Frantziako estatuko hiru herrialdeetan (Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa) oraindik ere oso egoera larrian dagoen. Euskarak izan duen atzerakadaren lekuko, Louis-Lucien Bonaparteren mapan (1850-1870) euskarak zeuden mugak ere erakusten dira, eta agerian gelditzen da Araban eta Nafarroan izan den atzerakada. Puntu bidez adierazten da eremu hori.

2. BAZTANGO MINTZOAREN EZAUGARRIAK

2.1 Fonetika-fonologia

Aipatu berri dugun moduan, atal honetan **ahozko hizkuntzari dagozkion ezaugarriak** ageri dira. Ezaugarri horiek ez dira idatzian erabiltzen, ahoskatzeko orduan baizik, hori dela eta, idazterakoan ez ditugu horiek erabili behar. Era berean, aipatu beharra dago adibideak idaztean ahoskatu bezala eman ditugula (*h* gabe, bokal eta kontsonante galerekin...). Akitzeko, argi utzi nahi genuke ezaugarri hauetako anitz ez direla Baztanen bakarrik egiten, bertze hainbat lekutan ere horrelako aldaketak gertatzen baitira.

- Hego Euskal Herriko ezaugarria da aitzinetik *i* edo *u* bokalak ageri badira, *a* > *e* bihurtzea: *aita* > *aite*, *ura* > *ure*, *giltza* > *giltze*, *gauza* > *gauze*, *gustatzen* > *gustetzen*, *etorri da* > *torri de...*

Baztanen bilakaera hori indartsua da, baita Ultzaman ere, baina ez Bidaso aldean, Urdazubin edo Zugarramurdin. Koldo Zuazok dio Bizkaian, Arabako alderdi euskaldunean, Gipuzkoako hegoaldean eta Nafarroako alderdi zabalean gertatzen dela.

- Horrez gain, badira bertze bokal aldaketa batzuk ere. Aditz trinkoen iraganean, adibidez, *-a*-dago: *zagon* (zegoen), *nakien* (nekien), *zailtzen* (zebiltzan)...
- Baztangoizan 2. pertsona pluralean *-zue* > *-ze* egiten da: *duzue* > *duze*
- NOR-NORI-NORK sailean **erau* erroa nagusi da Baztan osoan: *da(u)t*, *daku*, *datz(u)e...* Hala ere, idatzirako *dit*, *digu*, *dizu...* modukoak erabili behar dira.
- Anitzek uste dutenaren kontra, euskarak azentua du, baina leku batetik bertzera azentua tokiz aldatzen da:

Baztan-Ultzamatik Erronkarira [-2] da azentua, hau da, hitzaren eskuinaldetik hasita, bigarren silaban dago: *ái-te*, *ón-gi*, *ó-tsua*, *án-driak*, *bo-li-grá-fua...* Bidaso aldean (Bortzirietan, Malerrekan eta Bertizaranan), aldiz, ezkerretik hasita bigarren silaban [+2]: *a-ttá*, *on-gí*, *o-tsú-a*, *an-drík*, *bo-lí-gra-fu-a...*

- Euskara batuan *o-tso-a* litzatekeena, Baztanen *ó-tsua* izanen litzateke, hau da, azken bi silabak bakarrean ahoskatzen dira eta indarra lehen silabari ematen zaio. Horri goranzko diptongo deitzen zaio: *ótsua*, *árrie*, *lérrua*, *ándriak...*
- Bustidura (*ñ*, *ll*, *tt...*) ahula da Baztan gehienez (*ginuen*, *zinuen...*), Basaburuko herrietan eta Oronozen, berriz, indartsua (*giñun*, *ziñun*, *zalla...*).

Hala ere, Baztangoizan batzuetan *ñ* eta *ll* aditzen ahal ditugu, bi bokal jarraian daudelarik eta bigarrena *i* delarik: *arrañe*, *ezpañe*, *erdolla...* Bokal bakarra dagoelarik, berriz, ez da bustidurarik egiten: *makile*, *ozpine*, *zikine...*

2. BAZTANGO MINTZOAREN EZAUGARRIAK

- Nafarreraren ezaugarri nagusietako bat bokal galerak dira. Bi galera mota ditugu: aferesia eta sinkopa.
Aferesia deitzen diogu lehen bokala galtzeari: *torri, karri, kusi, man...*
Sinkopa, berriz, hitz barneko bokala galtzeari: *abre, pastu, erten, arpatu...*
Baztanen eta Bidaso aldean gertatzen dira aferesiak nahiz sinkopak, baina ez dira beti galera berdinak izaten. Baztanen *atra, bedratzi, arpatu, pastu...* egiten da eta Bidaso aldean, aldiz, *ate, bedetzi, arrautu, pasatu...* Aitzitik, Bidaso aldean *engaintzen, dutelkoz, ittko...* adituko ditugu eta Baztanen, ordea, *engainatzen, dutelakoz, iteko...*
- Genitibo (NOREN) singularrean **-aren > -ain** egiten da Baztanen: *amarena > amaña* (Basaburuan), *amaine* (Baztangoizan).
- Gauza bera gertatzen da geroaldian ere **-en > -ain**: *erranen > errain, emanen > main, joanen > gain...* Baztanen bilakaera hori anitz erabiltzen da eta Malerrekaraino ailegatzen da.
- Erakusleak deklinatzean Baztanen *oketara, oketan, okekin...* erabiltzen da, Bidaso aldean, aldiz, *otara, otan, okin...*
- Geroaldian **-tuko > -tiko** egiten da: *pastiko, arpatiko...*
- Euskara nafarrean **-rtz-** atxiki da⁵: *bertze, bortz, ortzegun, ortzirale, hertze...*
- Mailegu zaharretan, hau da, aspaldi euskarara ekarritako hitzetan erdarazko **-on > -oin** egiten da Baztanen, Lapurdin eta Behe Nafarroan bezala: *takoña, arratoña, arrazoña...*
Mailegu berrietan, ordea, ez da hori gertatzen: *melona, balona...* Baztan-Bidaso guztian egiten da **-on > -on**: *melona, kamiona, frontona, limona, koltxona, kordiona...*
Horrez gain, **-ción > -zione** ere gertatzen da: *konparazione, orientazione, afizionia...*
- *j-ren ebakera [j] da: *yan, yakin...*
- Euskara nafarrean *oa* bokal multzoaren aitzinean *g-* garatu da: *guatze* (ohatze), *gaye* (hoa)... Baztanen, hala ere, ez da Bidaso aldean bezala, kasu guztietan erabiltzen, lehen erran dugun moduan, tarteko hizkera izatean, bi alderdietako ezaugarriak hartzen baititu. Hortaz, Bidasoan *guartu* (ohartu), *guain* (orain)... adituko dugu, baina ez Baztanen.
- Sudurkarien (*m, n, ñ*) aitzinean, *o* bokala *u* bihurtzen da Ipar Euskal Herrian: *unek, uni...* Ezaugarri hori ahula da egun Baztanen eta solas batzuetan baino ez da erabiltzen: *untzi, unten...*

2. BAZTANGO MINTZOAREN EZAUGARRIAK

Ahozko adibideak⁶

Jarraian ahoz bildutako pasarte batzuen transkripzioak ageri dira. Bertan Fonetika-fonologia atalean deskribatutako hainbat ezaugarri ikus daitezke. Horiz Baztangoak diren ezaugarriak markatu ditugu, eta urdinez, ordea, Baztan-Bidaso guztikoak.



ELEKTRIZITATEA SARTU ZUTENEKOA

Eletrizidadia, karo... pues o... eztaikit zenbat urte **tuen** patuik (...). Eta, **patu** zutelaik, klao, lenagoko xarrek eta etzuten siñesten argie nola **tortzen al** tzen alanbre batetik, (...) ta etzela posible, ta etzela posible, ta orduen, emen **erten** tzuten **atra** ziela bixkerrera, e... kablia **eldu zen** lekure, ya nola **tortzen** tzen argie, kabletik barna, atra zirela. Eta, ez... ez **eldu**, ta ez **eldu**, argie ez eldu, ta ez **eldu**, ta azkenean aspertu ta itxea **torri**, ta argie **torrie**... ta nola **torri** zen ikusi gabe!

(Almandoz)

HAURDUN LANEAN

Ink.: *Eta emakumeak egon(en) tzien aurdun... az... ondarreko egunera arte lanean, ez?*

Lanian, lanean, etzen ez medikuik eta ez **yos** ere ta gero ongi **tortzen** bada ongi (e)torrie ta... biek iltzen bali'madire biek zulora, ta... gizona beala **bertze** batekin ezkonduko zen ta, oi zen orduko maitasune (...)
Baño gañea ola neskarar gelditzia de o bua! **Ure**, desonra (b)at bezala zen...

Ink.: Ori...

Eta klaro... ze **iten** duzu? Arrapatzen duzun **ain**gana arrimatu **naiz** berak **kasatiko** bali'mazaitu re...

(Amaiur)

HAURRAK NONDIK HELDU

Almandozen ba... bada ermite **bat**, bada oñiken **ermite** xar bat. Eta... aurrek, aurrei **erten** **tzakuten** aurrek andik **kartzen** tziela. Ba, bueno, aurrei aundiek **erten** **tzakuten** aurrei Santa Barbaratik **kartzen** tziela aurrek eta Santa Barbaratik, an eztaikit **nun** egoten tziela, oi eztaikit, eta, emaiñe zenak **kartzen** tziela mandarran artute.

(Almandoz)

⁶ <http://centros.educacion.navarra.es/eibz/baliabideak/euskalkiak/ariketak.htm> webgunean pasarte hauen audioak ageri dira. Ikus daitekeen moduan, ikastaro batean egindako jarduerak dira; argitalpen honetarako, ezaugarriak berrikusi ditugu.

2. BAZTANGO MINTZOAREN EZAUGARRIAK



JESUKRISTO ETA SAN PEDRO OGI ERAUZTEN

Etxe batean allatzen omen die... t... Jesukristo San Pedro mundu kurri te... **doike** gaizoak **e(k)** pobriak... gosea[k] zaud(en) **doike**, t'eskatu zuten afarie, etxe artan afarie, afaltzeko, yatekoa, o afarie o ya... yatera ta... etxe artan, Jesukristo ta San Pedroi **man** tze'ma go[go]tik afaltzera! Ta gero lo **iteko** lekue re bai! Da, beamunean ogi edautzi barra...

- Eg(o)n, e(g)on trankil...

Jesukristok **erran** omen tzion nausie(i)...

- Guk edautziko tugu ogiek beala biaunian, biar... **fite** (g)añera

- **Inen tuzue?**

Ta...

- Bai, bai...

- **Inen tuzue?**

- Bai **inen tu[gu], inen tu[gu]**...

Geo, biek **guatze** batian... **patu** omen **tzuzten**, biek **guatze** batian, Jesukristo baxterrian ta San Pedro **xokoan**... nausie[k] nai zuen ogie erautzi...

- Yeikizaizte! Muizaizte ortik!

Ez yeikitzen! Berriz e oiuka. Ta **ez yeikitzen**. Mekabuen! Gizona koleatu! Artu makil bet...

- Etzate yekitzen? Bai yekiko zate!

Yipi!Yapa!Yipi!Yapa! Jesukristo xetu makil**ke** yoka... (...)

- **Uai** yekiko **tuk** bai!

Baña **ez yeikitzen** edo re... an kieto **guatzian**... San Perrok **erran** men tzion Jesukristoi:

- Pasai, pasai xokora... berriz ere eldu bada... orduen nik **artiko tiet**, ni (k)oño be **bertzela** beti iri yoko au...

Ta berriz e oiuke **nausie** ta **ez yeikitzen, ez yeikitzen** ta... bueno... **eldu** men da berriz makilekin...

- Artxion artu **tik**... bazterrekuak, **oai** artuko **tik** zokokuak!

Berriz, zokokua yipi! yapa! yipi! yapa! Berriz e Jesukristo xiatu bi aldiz, **te** San Pedro beti **ungi!**

(Erratzu)

2. BAZTANGO MINTZOAREN EZAUGARRIAK

Oronozko hizkera nolakoa den ikusteko, honako pasarte honetan berdez ageri dira Bidasoko hizkerarekin bat egiten duten ezaugarriak:



GORPUTZA GARBITZEA

Amatxi, **aittu** izan du(t)... bazen emen **bettixko**, ya Gontxeko bordako **parin**, gure bordatik beittigo **bañon** olako erreka andi **bat**, **orai** ya des**iña** da biño paretekin **iña** pentsa**zue**, ez zement**ukin**, e! paret**akin**, ta kao, pareta zolo guzi**ik** ura **yuaten** tzen, **itten** tzen olako po... zera bat, poza aundi **bat**, eta pareta zolu ek iratze**kin** tapatzen gint**tun**. Ta, bai... ta klaro, ura... **itten** tzen... putzu bat aundi**ya**, ta arara **yuaten** giñen, igual belar**rin** aittuta... edo, bueno pues igual gaur igandia da ta e... badugu asti pixk**ot** ta arara. Ta, **bertze** bat bijilatzen ya norbait o **eldu** zen edo norbatte(k) begitzen tzun ta, olaxen! **ezpaizen** **ordun** ez urik eta **yaus** ere **itxin** ta izaten.

(Oronoz)

**BAZTANGO
MINTZOA
ERABILTZEKO
GIDA**

2.2 Morfologia

Arestiko atalean ikusitako ezaugarriak ahozkoari dagozkion bezala, honetan idatzizkoari dagozkionak ikusiko ditugu. Anitzetan Baztango formak erabili beharrean, euskara “batuko” formetara jotzen dugu, hobeak direlakoan. Jarraian ageri diren ezaugarriak ikustearekin batera, idaztean Baztango euskara “batuan” edo estandarrean nola eman behar diren azalduko dugu, bertako estandarra erabili nahi izanez gero, zuzen aritzeko.

- Baztanen destinatiboan (NORENTZAT/NORENDAKO) *-endako* erabiltzen da, ez *-entzat*: *jendiandako* (jendearendako), *mutikoandako* (mutikoarendako), *aitendako* (aitarendako)...
- Prolatiboan (ZERTZAT) *-tako* erabiltzen da, ez *-tzat*: *tontotako artu zuten* (tontotako hartu zuten).
- Ablatiboan (NONDIK) plural eta mugagabeen *-(e)tarik* erabiltzen da: *etxeetaik* (etxeetarik), *oketaik* (hauetarik)...
- *Eman* eta *utzi* aditzekin adlatiboa (NORA/ZERTARA) erabiltzen da Baztanen: *man jatera* (eman jatera), *utzi aitzera* (utzi aditzera)... Hondar aldian gero eta gehiago hedatu dira *eman jaten*, *aditzen utzi*...
- Baztangoizan Ipar Euskal Herriko *-rat* gainerako herrietan baino gehiago erabiltzen da, nahiz eta hori ere gero eta ahulagoa den. Hala ere, solas anitzetan horren arrastoak ageri dira: *unet* (honat), *arat* (harat), *aitzinet* (aitzinat), *norat* (norat)...
- Geroaldia egiteko, Nafarroa gehienez eta Iparraldean *-n* letraz akitzen diren aditzetan *-en* erabiltzen da (*emanen*, *izanen*, *janen*, *joanen*⁷...), ez *-go* (*emango*, *izango*, *jango*, *joango*...). Arras hedatua dagoen akatsa da *emanen ordez* (*main* ahoz), *emango* erabiltzea. Izan ere, Baztango mintzoa zuzen erabiltzen dutenei *emango* adituz gero, *eman gogo* (eman nahi) errateko izanen da, ez *emanen* errateko.
- Ahaleran gero eta gutxiago erabiltzen dira trinkoak. Normalean ahalera egiteko *-t(z)en ahal* egitura erabiltzen da: *tortzen al da* (etortzen ahal da), *eztut iten al* (ez dut egiten ahal), *eztugu gaten al* (ez dugu eramaten/joaten⁸ ahal)...
- Baztanen objektuak izendatzeko genitiboa (NOREN) erabiltzen da, nahiz urteotan galtzen ari den; forma gehienak Baztangoizan aurkituko ditugu: *ardien kusterera* (ardien ikusterera = ardiak ikusterera), *semiaiñ aztera* (semearen haztera = semea haztera)...

7 Idatziz *joan*, *joaten* eta *joanen* erabiliko dugu nahiz ahoz *gain*, *gaten* eta *gain* egiten dugun.

8 Baztanen *joan* aditzak *eramanen* ere adierazten du: *ardiek gan tuzte bordara* (ardiak joan/eraman dituzte bordara)

2. BAZTANGO MINTZOAREN EZAUGARRIAK

2.3 Sintaxia

Atal honetan Baztango mintzoan esaldiak egiteko zein egitura erabiltzen den ikusiko dugu:

- Denbora eta modu perpausetan *-(e)larik* erabiltzen da, ez *-(e)nean*: *aurre nintzelaik* (haurra nintzelarik), *gazteak ginelaik* (gazteak ginelarik), *emen itxetan iten zielaik* (hemen etxeetan egiten zirelarik)...
- *Uste* aditz nagusia delarik, perpaus konpletiboa egiteko *-(e)n* erabiltzen da, ez *-(e)lla*: *nik uste Mikelek kusko duen* (nik uste Mikelek ikusiko duen) / *ez dut uste orain gaten den* (ez dut uste orain joaten den) / *nik uste tortzen tzen* (nik uste etortzen zen)...
- Ekialdean kausa perpausetan **bait-** erabiltzen da. Hortaz, *-(e)lako* formarekin batera, **bait-** ere bultzatu beharko genuke: *andaluze(k) baitziren denak* (andaluzak baitziren denak).
- Perpaus kontzesiboak egiteko, gero eta gehiago erabiltzen dira *arren* eta *nahiz eta*. Baztanen, ordea, adinekoek **nahiz** bakarrik erabiltzen dute, *eta* gabe: *naiz elur aundie ai, lau saltoz pastu nuen* (nahiz elur handia ari, lau saltoz pasatu nuen) / *maxterrak bere eskudo ortan bere... naiz bere etxan izen, etzuen txikitzen al urte bat baño geio tapatue* (maizterrak bere armarri horretan bere... nahiz bere etxea izan, ez zuen txikitzen ahal urte bat baino gehiago).

Bertze aukera bat **ba-... ere** eta **-ta ere** egiturak dira: *erregiñe iltzen bada ere, bertziak erleak denak lanik eztutela iten* (erregina hiltzen bada ere, bertze erleek denek lanik ez dutela egiten) / *maxter izenta re igual inder pollitekuak* (maizter izanda ere, igual indar politekoak)

2.4 Lexikoa

Kontrakoa uste badugu ere, gure eskualdean erabiltzen ditugun hitz gehienak euskara batuko formak ere badira eta, hortaz, bultzatu eta erabili beharrekoak. Hona hemen solasik erabilieneren zerrenda⁹:

| Erdialdekoak ¹⁰ | Baztangoak |
|----------------------------|------------|
| ahaztu | atzendu |
| aitona | aitatxi |
| amaitu | akitu |

9 Zaila da gehien erabiltzen diren solasen zerrenda osoa egitea, hori dela eta, hemen ageri ez diren solasak 3.3.2.1 atalean ala Salabururen eta Lakarren (2005) *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia* lanean aurki ditzakezue.

10 Gipuzkoa inguruko euskalkiari dagozkion hitzak dira zutabe honetan agertzen direnak eta normalean hauek dira euskara “batutzat” hartzen direnak.

2. BAZTANGO MINTZOAREN EZAUGARRIAK

| | |
|---------------------|----------------------------------|
| amona | amatxi |
| apurtu | hautsi |
| asko | a(u)nitz |
| atze(an) | gibel(ean) |
| aurre(an) | aitzin(ean) |
| bataz beste | banaz bertze |
| behera | beheiti |
| berriro | berriz |
| entzun | aditu |
| erraz | aise |
| eseri | jarri |
| eskerrik asko | esker mila, mila esker, milesker |
| ezer | deus, ja |
| fardel, pixoihal | xatar |
| gaixo | eri |
| gehiegi | sobera |
| gora | goiti |
| gorde | atxiki |
| gutxi gorabehera | guti goiti-beheiti |
| hasiera | hasmenta |
| hitz egin | solas egin, solastatu, mintzatu |
| hozka | ausiki |
| iritsi | heldu ¹¹ , ailegatu |
| irten | atera |
| jai | besta |
| jarri | paratu |
| lapurtu | ebatsi |
| laster | fite, agudo |
| noski, dudarik gabe | doike |
| ondo | ongi |
| oso | arras, arrunt |
| ustez, antza denez | naski |

11 *Heldu* aditzak *etorri* ere adierazten du: heldu zara? = bazatoz?

2. BAZTANGO MINTZOAREN EZAUGARRIAK

Idatziko adibideak

Jarraian idatzizko hainbat adibide ageri dira, batzuk komunikabideetatik hartuak dira eta bertze batzuk, berriz, Baztanen ikasten duten ikasleek idatziak. Testu bakoitzaren ondotik iruzkin txiki bat egin dugu, Baztango mintzo estandarra egoki erabili den ikusteko, oharrak egiteko... Horrez gain, zuzenketaren bat behar zuten testuen kasuan, testua bitan eman dugu: lehenbizian bere horretan eta bigarreanean, ordea, zuzenduta Zuzenketa edo aldaketa horiek azpimarratuta ageri dira.



Itzi-Ttapa | 595 zk.
2013.07.25

HERRIZ HERRI | 45

BAZTAN

ERREPIDEAK → MARIEZKURRENA ARI DA

Abuztu hondarrean irekiko dute Belateko tunela

Ezponda egonkortzeko lanak akituta¹²

TTIPI-TTAPA

Belateko tuneleko hegoaldeko euste-lanak abuztu hondarrerako¹³ akituko direla aurrikusi du Nafarroako Gobernuak. Sustapen kontseilariak obrak bisitatu zituen uztailaren 18an. Gaur egun, ezponda

egonkortzeko lanakegiten ari dira, apirilaren 14 eta 15ean tunelaren hegoaldeko ahoan zenbait luizi izan baitziren. Une hartan, ezpondari eusten zion harri-lubetako azal baten harri batzuk erori egin ziren. Langileak eroritako materiala kentzeko nahiz mugitutako harri-lubetan aritu ziren lanean, nahiz eta euriteek egoera areagotu zuten apirila-



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Ezponda egonkortzeko lanetan ari dira Mariezkurrena eraikuntza enpresako langileak.

ren 29an, maiatzaren 18an eta ekainaren 9an.

Construcciones Mariezcurrena SA egonkortzeko lanak egiten ari da, funtsean, 60 me-


tro luzeko 120 mikropilotekainguratutako panel bat eraikitzeko, izandako luiziarekin zeharka jarrita eta malkaretik 13 bat metrora,

hark hegalaren goialde-
ra jarrai ez dezan eta
NA-1210 errepidera ailegatu ez dadin, Belateko lehengo mendatera, hain zuzen.

12 Bertako forma erabili du.
13 Bertako forma erabili du.

Albiste honetan Baztango mintzo estandarra ezin hobeki erabili dute.

2. BAZTANGO MINTZOAREN EZAUGARRIAK



asteazkena, 2013ko irailaren 25a

ttipi-ttapa

AZALA | BERRIAK | TTAPI TXARTELA | MULTIMEDIA | IRITZIA | 11 GALDERA LABUR | BOTA BERTSOA | RSS

GIZARTEA

Baztango elkartruke azokarako materiala bilduko da abuztuaren 5etik 22ra

Abuztuaren 23an goizez egingen da azoka, udaletxe pareko eraikinean

Baztan | 2013-08-05 | 08:41 | Testua: TTAPI-TTAPA | Argazkia: Artxiboko argazkia

Baztango Udalak antolatuta, elkartruke azoka izanen da aurten ere. Azokarat eramandako produktu bakoitzeko txartel bat emanen dute. Produktuak egoera onean egon beharko dute eta uzteko epea abuztuaren 5etik 22ra, goizean 11.00etatik 14.00etara izanen da Gizarte Zerbitzuetan (Udaletxeko beheitiko solairuan).

Azoka egunean xartel horien truke azokako edozein produktu eramaten ahalko da. Elkartruke azoka abuztuaren 23an egingen da, goizeko 11:00etatik 14:00etara Udaletxe pareko eraikinean.

Azokarat ekarritako produktu bakoitzeko txartel bat emanen da. Gizarte Zerbitzuetatik aipatu dutenez, «zuk etxeko edozein elementu ekar dezakezu, ikasturte hasiera hurbil denez interesgarri izango litzake eskola materiala ekartzea: kuaderno, estutxe, karpeta, apaigarri pertsonalak, dekorazioa, etxe-tresnak, mahai jolasak...eta txartel bat emanen dizugu ekarritako produktu bakoitzeko!!».

Albiste honetan nahiko ongi erabili dute bertako hizkera estandarra, nahiz akats txiki batzuk egin.

BAZTANGO ELKARTRUKE AZOKARAKO MATERIALA BILDUKO DA ABUZTUAREN 5ETIK 22RA

Ttapi-ttapa (2013-08-05)

Abuztuaren 23an goizez egingen da azoka, udaletxe pareko eraikinean

Baztango Udalak antolatuta, elkartruke azoka izanen da aurten ere. Azokarat eramandako produktu bakoitzeko txartel bat emanen dute. Produktuak egoera onean egon beharko dute eta uzteko epea abuztuaren 5etik 22ra, goizean 11:00etatik¹⁴ 14:00etara izanen da Gizarte Zerbitzuetan (Udaletxeko beheitiko solairuan).

Azoka egunean txartel¹⁵ horien truke azokako edozein produktu eramaten ahalko da. Elkartruke azoka abuztuaren 23an egingen da, goizeko 11:00etatik 14:00etara Udaletxe pareko eraikinean.

Azokarat ekarritako produktu bakoitzeko txartel bat emanen da. Gizarte Zerbitzuetatik aipatu dutenez, «zuk etxeko edozein elementu ekartzen ahal duzu, ikasturte hasiera hurbil denez interesgarri izanen litzateke eskola materiala ekartzea: koaderno, estutxe, karpeta, apaingarri pertsonalak, dekorazioa, etxe-tresnak, mahai jolasak... eta txartel bat emanen dizugu ekarritako produktu bakoitzeko!!».

14 Hurrengo paragrafoan orduak bi puntuz adierazten dira, hemen, berriz, puntu bakarrarekin. Egokiena da lau digituak agertzea eta bi puntuz bereiztea.

15 Lehenbiziko paragrafoan *txartel* erabili dute eta hemen, aldiz, *xartel*. Sistematikotasun falta dago.

Komatzoen artean gizarte zerbitzuetako langilearen solasak bere horretan ageri dira; kasu horretan ez ditu gure hizkeraren ezaugarriak betetzen, *ekar dezakezu* eta *izango erabiltzen* baititu. Hala ere, *izango litzateke* erran eta gero, *emanen dizugu* erabiltzen du, etorkizunerako bi formak nahasiz.

Solas horiek berez komatzoen artean egonda bere horretan agertu behar dute idatzietan baina guk adibide hau baliatu nahi izan dugu Baztango mintzo zuzenean nola egingen litzatekeen erakusteko.

2. BAZTANGO MINTZOAREN EZAUGARRIAK

EUSKARA

Jada hiru urte pasatu dira institutura iritsi ginenetik. Honat etorri baino lehen bakarrik ikastolakoak ezagutzen nituen, beraz, beti euskaraz mintzatzen ginen. Besteak ezagutzean espero ez genuen gauza bat gertatu zen, gehienek erdera erabiltzen zuten euskara beharrean. Kuadrila berean elkartzean erdera besterik ez nuen entzuten. Gaur egun konturatu naiz nere ama hizkuntza lagunartean ez dudala gehiegi erabiltzen. Zergatik?

Alde batetik, nere lagun batzuk giro erdaldunean hazi dira, beraz euskaraz egitea batzuetan nekagarria egiten zaie eta berriro erdarara pasatzen dira, honela kuadrila guztia erdarara bultzatuz.

Bestetik, niretzat gaur egungo telesail eta aldizkari interesgarrienak erdaraz dira, euskarazkoek ez dutelako nigan interes handirik pizten. Adibidez, nire telesailik gustukoena Antena 3-ek ematen ditu eta hau kate erdalduna da. Horrek, nahi edo ez, eragin handia du, gazteleraizko hainbat espresio buruan gelditzen direlako.

Laburbilduz, esan nahi dudana da nire ama hizkuntza galtzea erokeri bat dela. Oraingoz behintzat gertatzen denaz kontu eman naiz, beraz, lehenengo pausoa emanda dago. Goazen ba bigarren pausora, zuzen ditzagun akatsak eta salba ditzagun euskara.

Euskara batuko eta bertako formak nahasteaz gain, gaztelaniaren eragina ere nabaritzen da idatzi honetan.

Adibide honek gure ikasleen irizpide falta uzten du agerian, hango eta hemengo formak nahasten baititu.

EUSKARA

Jada hiru urte pasatu dira institutura ailegatu ginenetik. Honat¹⁶ etorri baino lehen ikastolakoak baino ez nituen ezagutzen, beraz, beti euskaraz mintzatzen¹⁷ ginen. Bertzeak ezagutzean espero ez genuen gauza bat pasatu zen, gehienek gaztelania¹⁸ erabiltzen zuten euskara beharrean. Kuadrilla berean elkartzean gaztelania bertzerik ez nuen aditzen. Gaur egun konturatu naiz nire ama hizkuntza lagunartean ez dudala sobera erabiltzen. Zergatik?

Alde batetik, nire lagun batzuk giro erdaldunean hazi dira, beraz, euskaraz egitea batzuetan nekagarria egiten zaie eta berriz gaztelaniara pasatzen dira, honela kuadrilla guztia gaztelaniara bultzatuz.

Bertzetik, nire ustez gaur egungo telesail eta aldizkari interesgarrienak gaztelaniaz dira, euskarazkoek ez dutelako nigan interes handirik pizten. Adibidez, nire telesailik gustukoena Antena 3ek ematen ditu eta hau kate erdalduna da. Horrek, nahi edo ez, eragin handia du, gaztelaniazko hainbat erranairu buruan gelditzen direlako.

Laburbilduz, erran nahi dut nire ama hizkuntza galtzea erokeria hutsa dela. Oraingoz bederen, behinik behin gertatzen denaz kontu eman naiz¹⁹, beraz, lehenengo pausoa emanda dago. Goazen, bada, bigarren pausora, zuzen ditzagun akatsak eta salba dezagun euskara.

16 Bertako forma erabili du.

17 Bertako forma erabili du.

18 Erdara euskara ez den edozein hizkuntzari erraten ahal zaio.

Testu honetan gaztelaniaz ari denez, solas hori erabiltzea egokiagoa da.

19 Bertako forma erabili du.

2. BAZTANGO MINTZOAREN EZAUGARRIAK



IPUIN BAT? EZ, ZORITXARREZ, EZ!!

“Bazen behin”, horrela hasten dira ipuin guziak, baina egia erran ipuin hau zoritxarrez errealtatea da eta ez da behin gertatzen, eguneroko gauza bat da... nik, 227 urte dituen ispilu batek, nire esperientzia kontatuko dizuet, hau da, nire inguruan gertatu zena, baina errepikatzen dut hau ez dudala nik bakarrik ikusten, inguruko jende askok baizik.

Lehenengo aurkeztu egingo naiz, eskubidea daukazue ni nor naizen jakiteko, ezta? Normalean ez dut izen finkorik, baina Leirek Sufi eman zidan izena eta ordutik horrela deitzen diot nire buruari. Egia esan, ez dakit oso ondo zergatik jarri zidan izen hori, baina behin sufrimenduaren ispilua nintzela esaten entzun nion, eta beharbada horregatik izango da.

Oso ispilu elegantea naiz, oso ondo kontserbatzen naiz, urrez egina nago eta oraindik lehenengo egunean bezala distiratsen dut. Ia perfektua naiz, gauza batek bakarrik itsutu egiten nau, duela hilabete batzuk erori egin nintzen eta nire erpin bateko urrezko dragoia galdu nuen. Zorionez, beste hirurak nirekin daude oraindik.

Bizi guztian gauza asko ikusi ditut, eta denak nahiko harrigarriak izan dira, baina azken honek, beste guztiei irabazi egiten die, hortaz, erabaki dut honi garrantzi gehiago ez ematea. Egia esan, oraindik ez dut ulertzen zergatik gertatu zen hau dena, eta batzuetan pentsatzen dut gizakia dela ezagutzen dudan espezierik arraroena. Pentsatu gabe egiten dituzte gauzak, inongo arrazoirik gabe, beraien burua ikusten dute bakarrik eta gutxik errespetatzen dute beraien ingurukoa, espezie berdinekoak izan arren. Oso arraroak dira.

Batuko formak eta bertakoak nahasten ditu. Gaztelaniaren eragina ere nabari zaio. Ikasleek hutsune nabarmena dutela agerikoa da.

IPUIN BAT? EZ, ZORITXARREZ, EZ!!

“Bazen behin”, horrela hasten dira ipuin guziak²⁰, baina egia erran ipuin hau zoritxarrez errealtatea da eta ez da behin gertatzen, eguneroko gauza bat da... nik, 227 urte dituen ispilu batek, nire esperientzia kontatuko dizuet, hau da, nire inguruan gertatu zena, baina errepikatzen dut hau ez dudala nik bakarrik ikusten, inguruko jende anitzek baizik.

Lehenengo aurkeztu eginen dut neure burua, eskubidea daukazue ni nor naizen jakiteko, ezta? Normalean ez dut izen finkorik, baina Leirek Sufi eman zidan izena eta ordutik horrela deitzen diot nire buruari. Egia erran²¹, ez dakit sobera ongi zergatik paratu zidan izen hori, baina behin sufrimenduaren ispilua nintzela erraten aditu nion, eta beharbada horregatik izanen da.

Arras ispilu elegantea naiz, arras ongi mantentzen dut nire burua, urrez egina nago eta oraindik lehenengo egunean bezala distiratsen dut. Ia perfektua naiz, gauza batek bakarrik itsusten / itsusi egiten nau, duela hilabete batzuk erori egin nintzen eta nire izkin bateko urrezko dragoia galdu nuen. Zorionez, bertze hirurak nirekin daude oraindik.

Bizi guztian gauza anitz ikusi ditut, eta denak nahiko harrigarriak izan dira, baina hondarreko honek, bertze guztiei²² irabazi egiten die, hortaz, erabaki dut honi garrantzi gehiago ez ematea. Egia erran, oraindik ez dut ulertzen zergatik pasatu zen hau dena, eta batzuetan pentsatzen dut gizakia dela ezagutzen dudan espezierik arraroena. Pentsatu gabe egiten dituzte gauzak, inongo arrazoirik gabe, beraien burua ikusten dute bakarrik eta gutxik errespetatzen dute beraien ingurukoa, espezie berdinekoak izan arren. Arras arraroak dira.

20 *Hiztegi Batuan guzti* da hobesten den forma. Horrek ez du erran nahi *guzi* gaizki dagoenik.

21 Lehenbiziko esaldian, aldiz, *erran* erabili du.

22 Lehenbiziko esaldian *guzi* erabili du eta, hemen, berriz, *guzti*. Sistematikotasuna falta zaio.

2. BAZTANGO MINTZOAREN EZAUGARRIAK



Kaixo Ainhoa:

Duela denbora asko ez dugula solasten. Hemendik gauzak asko aldatu dira joan zinenetik. Orain tenisa gustatzen zait eta hainbat lagun ditut.

Esan naute, oso ongi ez zabiltzala ikasketetan, ezta? eta horren zergatia ere esan didate. Badakit gaizki tratatzen dartzutela eskolan, baina aurrerantz jarraitu behar duzu. Niri, txikia nintzenean, gauza bera egiten zidaten. Egun batean, eskaileretatik behera bultzatu zidaten, eta aurreko hortz guztiak hautsi zizkidaten, eta hori dena emaitza onak ateratzen nituelako. Gainera, nire gurasoengandik ez nuen laguntzarik jasotzen. Amari, egiten zidaten gauzak kontatzen nionean, kasurik ez egiteko esaten zidan, enbidia zutelako. Baina gero aitari txutxumutxuka esaten zion, kontatzen nizkion gauza guztiak zozokeriak zirela. Momentu hoietan gaizki sentitzen nintzen, zu horain sentitzen zaren bezala, suposatzen dut. Baina ez txorakeririk egin. Nire lagun bat suizidatu egin zenetik, bizitza bi egun direla konturatu nintzen. Bizitza bakar bat dago eta disfrutatu egin behar duzu. Niri adibidez, tenisak bueltatu zizkidan bizitzeko gogoak. Inorek kasu egiten ez zidanean tenisera jokatzera joaten nintzen, eta pixkanaka-pixkanaka nire burua superatzen hasi nintzen, eta horain, nire probintziako onenetarikoak naiz, eta lagun asko ditut. Horregatik, zure bizitzan helmuga batzuk jartzea proposatzen dizut, horrek pozik mantenduko zaituelako.

Espero dut nere aholkuak lagundu izana, eta egun pare bat pasata zure gutun bat iristea espero dut.

Agur eta laister arte.

Nerea

Batuko formak eta bertakoak nahasten ditu.
Gaztelaniaren eragina ere nabari zaio.



Kaixo Ainhoa:

Duela denbora anitz ez dugula solastatzen / solas egiten. Hemendik gauzak anitz aldatu dira joan zinenetik. Orain tenisa gustatzen zait eta hainbat lagun ditut.

Erran didate ikasketetan ez zabiltzala sobera ongi, ezta? Horren zergatia ere erran didate²³. Badakit gaizki tratatzen zaituztela eskolan, baina aitzina jarraitu behar duzu. Niri, txikia nintzelarik, gauza bera egiten zidaten. Egun batean, eskaileretatik beheiti bulkatu ninduten, eta aitzineko hortz guztiak hautsi²⁴ zizkidaten, eta hori dena emaitza onak ateratzen nituelako. Gainera, nire gurasoengandik ez nuen laguntzarik jasotzen. Amari, egiten zizkidaten gauzak kontatzen nizkionean, kasurik ez egiteko erraten zidan, inbidia zutelako. Baina gero aitari txutxumutxuka erraten zion kontatzen nizkion gauza guztiak zozokeriak zirela. Memento horietan gaizki sentitzen nintzen, zu orain sentitzen zaren bezala, suposatzen dut. Baina ez txorakeriarik egin. Nire lagun batek bere burua hil zuenetik, bizitza bi egun direla konturatu nintzen. Bizitza bakarra dago eta disfrutatu egin behar duzu. Niri adibidez, tenisak bueltatu zidan bizitzeko gogoa. Inork kasu egiten ez zidanean tenisean jokatzera joaten nintzen, eta pixkanaka-pixkanaka nire burua gainditzen hasi nintzen, eta orain, nire probintziako onenetarikoak naiz, eta lagun anitz ditut. Horregatik, zure bizitzan helmuga batzuk jartzea proposatzen dizut, horrek pozik mantenduko zaituelako.

Espero dut nire aholkuak lagundu izana, eta egun pare bat pasatuta zure gutun bat ailegatzea.

Agur eta sarri arte.

Nerea

23 Esan naute eta esan didate erabili ditu jarraian, ez da sistematikoa.

24 Bertako forma zuzen erabili du.

3. EUSKALKIAK ETA EUSKARA BATUA

3.1 Nafarroako euskalkien estatusa eta erabilera

Gaur egun ez dago euskalkien erabileraren gaineko daturik, nahiz eta bi Foru Legek²⁵ aipatu bertako mintzoak babestu eta zaindu beharra.

Nafarroan euskalkien inguruan burutu den hondar lanetako bat dugu Euskarabideak 2011n egindako txostena, *Nafarroako euskalkien estatusa eta erabilera: azterketa kualitatiboa* izeneko. Orriotan, bertzeak bertze, bertan ageri diren hainbat ondorio eta hausnarketa eman nahi izan ditugu, adierazgarriak direlakoan.

Txostena egiten aritu ziren aditu gehienek ustez euskalkien prestigioa handitzen ari da; izan ere, garai batean, batuaren aldeko apustuarekin euskalkia aise uzten zen bazterrean, baina orain gazteen artean euskalkiaren prestigioa aktibatuta da. Hala ere, horrek ez du erran nahi euskalkien erabilera handitzen ari denik, erabiltzaileak harro sentitzen baitira euskalkiaz, batez ere gazteak, euskalkia eroso delako, hurbila, familiarra eta identitatea indartzeko balio duelako. Dena den, adinekoei begiratu gero, nabaritu dugu zenbait adinekok euskalkia gutxiesten dutela, batua hobea delakoan, baina, hala ere, euskalkia gehien eta hobekien erabiltzen dutenak dira. Gazteek, aldiz, gero eta iritzi hobea dute euskalkiaren gainean, baina adinekoek baino gutxiago erabiltzen dute. Gainera, gazteek eta hurrek gero eta gehiago nahastekatzen dituzte batua eta euskalkia; era berean, ezin dugu atzendu gaztelaniarekin ere nahasten dutela.

Aditu gehienek uste dute merezi duela euskalkien estatusa sustatzea, euskararen beraren mesedetan izan delako. Haien ustez, **euskalkia batez ere ahozkoan sustatu behar da eta idatzian, aldiz, tokiko estandarra**. Halaber, anitzek diote euskalkiez aberastutako estandar bat arras garrantzitsua dela eta, beraz, hori bultzatu behar dugula.

Gauza jakina da euskalkiek euskara batua hornitzen dutela, gainera, gero eta onartuago dago batua eta euskalkiak elkarren osagarri direla. Horrez gain, ez dugu atzendu behar euskalkia galtzen denean, erdara nagusitzen dela eta, hortaz, tokiko estandar indartsua behar dugula.

Argi dago, hortaz, euskalkiak prestigioa berreskuratzen ari direla poliki-poliki, nortasun ikurra (identitarioak) direlako, baina, gauza guztietan bezala, oreka behar da, gehiegizko zokokeriek kalte egiten baitiote euskarari (ez bakarrik batuari).

25 Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak 1.3 artikuluan “Nafarroako euskalkiek errespetu eta babes berezia” izanzen dutela ezarri zuen. Horrez gain, Nafarroako kultur ondareari buruzko 14/2005 Foru Legeak 18.3 artikuluan Nafarroako hizkuntzak, tokian tokiko bereizitasunekin, kultur ondareztat hartzen ditu, ondasun ez-materialen barnean.

3. EUSKALKIAK ETA EUSKARA BATUA

Euskalkiak ahozkoan erabiltzen dira batez ere, idatzian, aldiz, gutxi erabiltzen dira (normalean mezu laburrak, e-postak, oharrak... idazteko). Bertzalde, euskalkia batez ere erregistro informalari lotzen zaio eta batua formalari. Hala ere, hondar aldian saiakerak egin dira Nafarroan bertako aldaerak prentsan, eskoletan... sustatzeko. *Ttapi-ttapa*, erraterako, eredu bikaina da, euskara batuaren araei jarraitzen dielako eta, era berean, bertako euskarari dagozkion forma osoak erabiltzen eta bultzatzen dituelako. Hori da, hain zuzen, arestian aipatutako tokian tokiko estandarren adibide aski egokia.

Euskalkia gehien erabiltzen dutenak adinekoak eta alfabetatugabeak dira, eta baita oraindik eskolara joan ez diren haurrak ere; helduek ere erabiltzen dute, baina gutxiago. Bertzalde, euskaraz ikasten duten gazteek, nahiz euskalkiarekiko sentiberatasuna izan, baturako joera dute eta hizkera nahasia izaten dute: euskalkia, batua eta erdara irizpiderik gabe elkartzen baitituzte. Akitzeko, haurrak dira euskalkia gutxien erabiltzen dutenak. Agerikoa da, beraz, hezkuntza sistemaren eragina euskalkien gainbeheran izugarria dela. Hori irakasleoi dagokigu eta, horretarako, plangintza bat behar da, izan ere, eskolaren garrantzia arrunt handia da.

Adituen ustez esparru guztietan eman litezke aholkuak, baina batzuk bertze batzuk baino estrategikoagoak dira (hezkuntza eta komunikabideak, adibidez). Oro har, erran bezala, adituak esparru formaletan estandarra erabiltzearen aldekoak dira, eta ez-formaletan, berriz, bertakoa. Hortaz, beharrezkoa litzateke erabilera-esparruak zehaztea, gutxieneko gomendio batzuk ematea mesedegarri baitlitzateke batasunerako.

HEZKUNTZA

Ikastetxeetan gehienetan batuaz egiten da, baina kezka dago tokian tokiko hizkeren erabilerekin. Oinarrizko irizpide batzuk paratzea komeniko litzateke, ikasturte hasieratik aintzat hartzeko.

Euskalkitik baturako ibilbidea egin beharko litzateke ikasketa prozesuan aitzina egin ahala, euskalkien erabilera alde batera utzi gabe. Eskolaurrean herriko euskara erabiltzea litzateke egokiena, baita Haur Hezkuntzan ere. Lehen Hezkuntzan, aldiz, euskalkien berri jaso behar dute, ikusi liburuetan, telebistan... erabiltzen den euskarak bertzelako ezaugarriak dituela, baina, azken finean, euskara dela. Kanpoko irakasleak ere baliatzen ahal dira horretarako. Hortaz, mailetan goiti egin ahala, bertako formekin batera, erdialdekoak edota batukoak diren bertze formak ere poliki-poliki barneratuko dituzte ikasleek. Bigarren Hezkuntzan, ordea, ikasleek erregistro ezberdinen erabilera ongi bereizteaz gain, eremua kontuan hartuta tokiko estandarra eta batua egoki erabiltzen jakin beharko lukete. Azken batean, **ikastetxearen zeregin nagusia da ikasleari hizkuntza oinarri sendoa ematea**, lehenik eta behin, maila jasoan.

Julian Maiak (2000) dioen bezala, gure ikasleei eta euskaldunei erakutsi behar diegu hiztunik hoberena ez dela euskara jaso dakiena bakarrik, **erregistro ezberdinak bereizten dituen delat hitzun ona, eta eskolak horiek sortzen lagundu behar duela.**

3. EUSKALKIAK ETA EUSKARA BATUA

ADMINISTRAZIOA

Euskalkien erabilera arrunt eskasa da administrazioan. Herri euskaldunetan administrari batzuek baino ez dute egiten, baina ahozkoan bakarrik. Idatzian normalean ez da ageri, administrazio orokorreko testuak batuan izaten baitira, hortaz, bertako euskarara egokitu beharko lirateke.

KOMUNIKABIDEAK

Komunikabide gehienek ia beti batuaz egiten dute. Hala ere, gure eskualdeko hedabideetan ahozkoan nahiz idatzian arras eredu onak ditugu, erraterako: *Ttipi-ttapa*, *Xorroxin*...

LAN-MUNDUA

Lan-munduan euskalkiaren erabilera urria da. Normalean nekazaritzan, eraikuntzan eta zenbait lantegitan erabiltzen da euskalkia, lankideen arteko ahozko erabilera informaletan bereziki.

Aldarrikatu behar dugu seme-alabek etxean eta hurbileko komunitatean jasotzen dutena dela hoberena. Hortaz, batua euskalkiekin indartu behar dugu eta, aldi berean, euskalkiaren prestigioa handitu.

Horretarako, etxetik beretik hasi behar da, inguru hurbiletik. Gurasoei adierazi behar zaie zuzenena euskalkia transmititzea dela. Euskalkia etxean, kanpoan, aisialdian eta eginkizun ludikoetan erabili beharko litzateke, inguru informaletan. Eginkizun formaletarako, ordea, tokiko estandarra bultzatu beharko litzateke ikastetxeetan, komunikabideetan eta abarretan.

Erran dugun moduan, euskalkiak gero eta prestigio handiagoa du gazteen artean, bertako hizkerak identitatea indartzen duelako, baina egia da gazteek gero eta gutxiago erabiltzen dutela. Zer egiten ahal da egoera hori euskararen mesedetarako baliatzeko? Saiatu behar dugu euskalkia etxean, eskolan, tokiko komunikabideetan eta administrazioan erabiltzen, jendeak dituen zalantzak argitzen.

Euskalkia indartsua den guneetan, identitate propio bat dago eta identitate propio horrek anitz laguntzen dio euskarari, erdararen aitzinean sendoago egiten baitu. Baztanen, erraterako, herri txikietako gazteek nahiago dute euskaraz aritu, anitzetan erosoago sentitzen baitira euskaraz aritzean. Hortaz, erran dezakegu **euskalkiak euskara biziaren iraupena bermatzen duela**. Hortaz, euskalkia indartzeko gazteen erabilera bultzatu beharko litzateke. Hori dela eta, irakatsi behar diegu haien hizkerak ere balio duela eguneroko bizitzarako nahiz betebeharrak akademikoetarako. Horrela, tokiko estandarrak eman beharko lizkieke behar dituzten tresnak nahi duten guztia adierazi ahal izateko.

3. EUSKALKIAK ETA EUSKARA BATUA

Baztanen egoera soziolinguistiko ezberdina dago herri batzuetatik bertzeetara. Elizondon (eta errepide ondoko herrietan), adibidez, euskara gainbeheran zegoen joan den mendean eta duela hogeita hamar urte egoera arrunt kritikoa zen zenbait herritan. Belaunaldi gazteek, ordea, ezagutzari eta, neurri apalago batean, erabilerari dagokionez, galerari buelta eman diote.

Anitzetan adineko baztandar bati mikrofono bat parean paratuz gero edo kanpotarrekin arituz gero, gipuzkera moduko bat egiteko joera hartzen du. Gazteek, aldiz, batuaz egiteko joera izaten dute horrelakoetan; hori argi ikusten da neska-mutilek lehiaketetarako edo ikastetxerako egiten dituzten idazlanetan eta horrek agerian uzten du zein den prestigiozko hizkuntza.

Solas egitean **norentzat ari garen hartu behar da kontuan**. Hortaz, tokian tokiko hizkera ahozkoan erabiliko da elkar ulertzeko arazorik ez dagoelarik; idatzian, berriz, eskualderako diren testueta. Tokian tokiko hizkeren erabileraz 1979an Euskaltzaindiak hainbat gomendio²⁶ eman zituen eta horiek ezagutarazi behar dira.

Argi utzi behar da euskalkia ez dela batua baino gutxiago. Kezkagarria da aitatxi-amatxiak bilobekin batuaz aritzea edo bilobek aitatxi-amatxiei mintzatzeko modua zuzentzea eskolan bertze modu batez egiten delako solas. Arras garrantzitsua da aitatxi-amatxien transmisioa; gainera, gaur egun biloben zaintzaile dira. Era berean, hizkuntza kalitate handia dutela baliatu behar dugu, haiek baitira gure erreferenterik onena. Gurasoei eta adinekoei argi utzi behar zaie haien euskara ez dela gutxiago, ez dutela haien seme-alabek ikasten edo egiten duten euskara erabili beharrik.

Horrez gain, eredu diren pertsonen (“famatuek”) ere euskalkia erabiltzea garrantzitsua da gure mintzoaren itzala eta prestigioa haunditu nahi baditugu.

Halaber, euskaraz bertzelako erreferentziak ere behar dira, telebistak, bideojokoak... gaztelaniaz baititugu eta horrek eragin zuzena baitu gure egunerokoan. Hutsune hori agerian gelditzen da, adibidez, edozeini galdetuta nola erraten duen euskaraz “la paras”, “libre”... gehienetan jendeak ez baitaki erantzuten.

Irakaskuntzari dagokionez, egia da irakasleen hautaketa modua aldatzen ez den bitartean, irakasleei ezin zaiela eskatu euskalkien gaineko erantzukizunik. Hala ere, horrek ez du erran nahi ezin dutenik deus ere egin. **Irakasleak**, nahiz euskalkia ez ezagutu, **bertako hizkera errespetatzen eta bultzatzen saiatu beharko luke**. Irakaslea bertako euskalkian interesatu beharko litzateke eta bertako erranairuak, solasak... ikasi. Ideia bikaina litzateke, euskalkiaren prestigioa handitzeko, irakasleak bertako formak ikasteko interesa erakustea, ikasleak protagonista bilaka daitezen eta haien hizkeraren prestigioa handi dadin. Horretarako, gelan bertako lexikoa eta erranairuak biltzen dituen liburuxka bat egin daiteke edota bertako euskaraz idatzita dauden materialak ezagutarazi eta denen eskura paratu, adibidez.

Adituen ustez, eskola sistema aldatu beharko litzateke, posible izateko hiztunik goxoenak eta hoberenak haur txikiekin aritzea; hasierako mailetan bereziki ahozkoari garrantzi handiagoa eman beharko litzaioke eta, horretarako, bertako irakasleak lehenetsi beharko lirateke.

26 3.2 atalean laburbildu ditugu Euskaltzaindiak euskalkien inguruan egin dituen adierazpenak.

3. EUSKALKIAK ETA EUSKARA BATUA

Behin eta berriz azpimarratu dugu tokiko estandarra landu behar dela eta, horrekin batera, guraso eta aitatxi-amatxien eredia bermatu behar dela. Baztanen eskolek horretarako aukera paregabea dute, bertan baitituzte hango euskaraz hobekien egiten duten pertsonak.

Eskoletan material didaktiko osagarria sortzen ahal da, testuliburuak moldatu (LH bitarteko etapetan, erraterako, solasak, egiturak... bertako hizkerara egokitu beharko lirateke). Ezin hobea litzateke aitzineko urteetan egindakoa gorde eta osatzen joatea, hartara, irakasleek ez bailukete urtero berritik hasi behar.

Horrez gain, ongi legoke irakaslearen koadernoan bertako hizkera bultzatzeko gutxieneko batzuk²⁷ paratzea, irakasleak saia daitezzen horiek erabiltzen eta, bide batez, ikasleek ikus dezaten irakasleek ere garrantzia ematen diotela haien hizkerari.

Ahokotasuna eskolaz kanpoko jardueren bidez lantzen ahal da, baina ez dugu atzentzen ahal gela barruan ere landu ahal (eta behar) dela. Anitzek uste dutenaren kontra, ikastetxeetan ez da hizkuntza formala bakarrik erabiltzen, jolas garaian, autobusean, pasabidean, ateraldietan... hizkuntza informala erabiltzen baita eta hori ere landu behar baita, bereziki etxetik euskalkirik ez duten familiekin.

Hortaz, **ikastetxe bakoitzak tokian tokiko planak egin beharko lituzke oinarritzko irizpideak finkatzeko**. Arestian erran bezala, oinarritzko jarraibide horiek ezberdinak izanen dira irakaskuntzako mailaren arabera (eskolaurrea, HH, LH edo DBH).

Irakasle euskalkidunak behar dira, irakasleak funtzio erreferentziala baitu haurren sozializazioan. Horretarako, irakasleak formatzeko beharra azpimarratu behar da; garrantzi handiagoa eman behar zaio, bai estandarren prestakuntzari (arauak gaurkatzeko, bertzeak bertze) baita tokian tokiko hizkeraren prestakuntzari ere. Horrela, formazio horren bidez, irakasleak kontzientziatzeaz gain, behar dituzten irizpideak ere jasoko dituzte, zalantzak argitu eta abar.

Ahokotasunari dagokionez, normalean gutxi eta gaizki lantzen da ahokotasuna, oinarria eredu idatziak izaten baitira. Iñaki Gamindek dio testugintzan, adibidez, oraindik ez direla euskaraz erabiltzen diren ezaugarriak aztertu eta dugun eredia gaztelaniakoan oinarrituta dagoela. Beraz, agerikoa da esparru hori gehiago landu behar dela, eta eskualde bakoitzean adinekoek erabiltzen dituzten egiturak eta bertzelakoak landu behar direla eskoletan.

Irakasleen formazioaz gain, ahokotasuna lantzeko material eta testu egokiak beharko lirateke, eta unitate didaktiko bereziak egin. Baztanen material eta baliabide anitz dago: batetik, bertako komunikabideek aukera paregabea ematen dute Baztango mintzoa lantzeko; bertetik, hainbat grabazio egin dira eta jendearen eskura paratu da material ugari. Horrez gain, hainbat material dago argitaratuta. Akitzeko, ezin dugu atzendu lekukorik eta erreferenterik onenak bertan izateak abantaila ikaragarriak dituela, ikasleak herritarrengana joaten ahal baitira galderak egitera, aitatxi-amatxiak eskoletara eramanez zerbait kontatzera, proiektuak egiten ahal dira...

27 Gutxieneakoak 3.3.1 atalean ageri dira.

3.2 Euskaltzaindiaren adierazpenak

Anitz dira gai honek sortu dituen eztabaidak eta uste okerrak; gaur egun oraindik behin baino gehiagotan aditzen ahal dugu euskara batuaren kontrako iritziren bat, euskalkiaren alde ari direlakoan. Anitzen ustez, euskalkia eta euskara batua elkarren etsai dira, nahiz egiazki elkarren osagarri izan. Argi dago euskalkirik gabe ez legokeela euskara baturik, baina, era berean, ezin dugu atzendu hizkuntza guztiek estandar bat dutela eginkizun formaletarako eta, azken finean, bizirik irauteko. Hori da, hain zuzen, euskara batuaren funtzioa. Hortaz, batak bertzearen beharra du, bakoitzak erabilera eremu desberdinetarako balio baitu.

Hasiera batean izan ziren zalantzak eta uste okerrak bideratzeko, Euskaltzaindiak hiru adierazpen egin zituen:

- 1)** 1979. urtean euskalkiak erabiltzerakoan nahitaez bete beharreko bi baldintza paratu zituen. Lehenbizikoa, idatzian ortografia bakarra onartu zuen batuan nahiz euskalkietan; azken batean, euskara hizkuntza bakarra da, ez hizkuntza anitz. Horregatik, Euskaltzaindiak ortografiaren batasunerako eskaini dituen erabaki eta proposamen guzti-guztiak bete behar dira euskalkietan idaztean ere.
- 2)** Urte batzuk beranduago, euskalkien erabilera eguneratu eta sistematizatu beharrez, bertze adierazpen bat egin zuen 1994an. Bertan, ahozkoan eta lagunarteko hizketan ohikoak diren laburtzapenak gaitzetsi zituen, baita tokian tokiko fonetismo bereziak ere. Akitzeko, euskalkian bi forma edo gehiago erabiltzen direnean, batuarekin bat datorrena hobetsi zuen.
- 3)** Euskalkia eta batua elkarrekin uztartu beharrak hainbat arazo sortzen ditu eta horri aurre egiteko konponbideak era anitzetakoak izan daitezke. Gainera, konponbideok kasuan-kasuan egokitu behar zaizkio aldian aldiko komunikazio-egoerari; betiere batasunari eutsiz eta euskal hiztunen bazterketa gutxietsiz. Egoerak lurraldearen arabera eta euskalkien arabera desberdinak direla kontuan hartuz, 2004ko adierazpenean euskara baturako eta euskalkietarako esparru eta joko-arau zehatzagoak ezarri zituen, euskaldun guztiok eroso eta erraz ari gaitezen egunero euskara erabiltzen dugunean.

3. EUSKALKIAK ETA EUSKARA BATUA

Horretarako, oinarritzko lau abiaburu hauek proposatu dira:

- **Begirunea izatea.**
- **Elkarren osagarri izatea.** Euskara batuko eta euskalkietako adierazpideek, idatzizkoek nahiz hitzezkoek, elkarren aberasgarri izan behar dute: zehatzago errateko, euskalkietako formek berezko bide izan behar dute euskara batuko formetara heltzeko. Bertzeak bertze, hiztegian, sintaxian eta erranairuen arloan, euskara batua eta euskalkiak ukipenean daude, bi errealitate horiek bizi-biziak direla.
- **Forma egokiak erabiltzea:** Euskalkia erabiltzean, egoera eta eremua kontuan hartuta aukeratu behar dira formarik egokienak: eremu zabalerako, euskara batutik hurbil dauden formak, eta eremu mugatuagoetan, bertakoak ere bai.
- **Arauak eta gomendioak betetzea.**

Horiez gain, administrazioan, komunikabideetan eta irakaskuntzan jarraitu beharreko gomendioak ere eman zituen.

3.2.1 Administrazioa

Administrazioari dagokionez, aipatzen du Euskal Herrian hiru administrazio mota ditugula: orokorra, lurraldekakoa eta tokian tokikoa. Ulertzekoa da, hortaz, bakoitzak bere hizkuntza-eremua izatea. Horrela, administrazioaren eginkizun nagusia herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzea izanik, bereizketa hau proposatzen du:

- Administrazio orokorrean euskara idatzian euskara batua erabiliko da.
- Lurralde mailan bertako euskalkiak aintzat hartuko dira, betiere administrazioiko lexikoaren eta terminologiaren batasuna begiratzuz.
- Tokian tokiko administrazioek bertako euskalkia erabiltzea bidezkoa da, batik bat ahoz ari garelarik.
- Herritarrekin ahozko harreman zuzena duten administrazioetako langileek tokian tokiko euskalkiaren oinarritzko ezagutza behar dute.

3. EUSKALKIAK ETA EUSKARA BATUA

3.2.2 Komunikabideak

Komunikabideei begiratuz gero, bi sailkapen egiten ditu Euskaltzaindiak: orokorrak eta eskualde mailakoak. Bakoitzak bere hizkuntza eremu berezia du; gainera, hedabideak ahozkoak, idatzizkoak edo ikus-entzunezkoak izan daitezke. Horiek horrela, eta komunikabideen eginkizun nagusia herritarrekin ahalik eta komunikaziorik egokiena lortzea izanik:

- Hedadura orokorreko komunikabideek euskara batua erabiliko dute.
- Eskualde edo herri mailako komunikabideek euskara batua eta euskalkia erabil dezakete, baina ez elkarrekin nahasiz. Hedaduraren arabera, kazetariak erabakiko dute zein ataletan, non eta noiz erabili batua eta noiz euskalkia.
- Euskalkian aritu behar duten kazetariak-eta gaitasun hori landua izan behar dute (ahozkoa nahiz idatzizkoa). Euskaltzaindiak gaitzesten ditu ahozkoan eta lagunarteko hizketan ohikoak diren laburtzapenak eta tokian tokiko fonetismo bereziak.
- Hizkuntza erregistroa hautatzerakoan, kazetariak-eta erabakiko dute zein ataletan, non eta noiz erabili euskara landua (batua nahiz euskalkia) eta noiz lagunartekoa.

3.2.3 Hezkuntza

Hezkuntzari dagokionez, irakaskuntzan erregistro landua eta lagunartekoa landu behar dira, betiere gogoan izanik ahozkoaren eta idatziaren arteko bereizketa. Izan ere, hezkuntzaren zereginik behinenetariko bat da ikasleei hizkuntzaren erabileran ahalik eta trebetasunik handiena ematea: hizkuntza aberatsa eta egoeraren araberakoa.

Horiek horrela, ondorengo urrats hauek izan beharko lirateke kontuan:

- Euskalkiek euren nortasuna dute eta hezkuntzan zaindu behar dira euren osagai esanguratsuak nahiz hizkuntzan betetzen duten funtzioa, betiere idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko desberdintasuna kontuan hartuz eta batasunerako arauak betez.
- Lagunarteko hizkera –gehienetan behinik behin–, euskalkian edo azpieuskalkian oinarritzen dela gogoratu behar da; eta landua, aldiz, euskara batuan edo euskalkiaren erabilera landuan. Horrenbertez, hezkuntza-komunitateak, egoeraren arabera, beharko du bideratu hezkuntza-prozesu bakoitzari dagokion erregistroa, batez ere lexikoan eta erranairuetan.
- Irakasleak hezkuntza-jardunean aritzeko, gomendagarria da hizkera landuaren eta lagunartekoaren jakitun egotea. Horrela, lagundu ahal izanen dio ikasleari hizkuntzaren erregistroen erabilera-esparruetan. Horretarako, era berean, ezinbertzekoa da irakasleen berriazko trebakuntza.

3.3 Ikastetxeko plana

Eskolan batuaren eta euskalkiaren arteko harremana kudeatu behar da eta hori bideratzeko irizpideak behar ditugu, eskolak hizkuntza estandarra ezinbertzean irakatsi eta landu behar baitu. Dena den, horrek ez du erran nahi eskualdeko hizkera alde batera utzi behar denik. Azken batean, euskalkidunei bi ereduak baloratzen irakatsi behar diegu, batetik, etxeko formek baturako ere balio dutela ikus dezaten eta, bertetik, bide batez batua ere aberastuko dugulako. Hortaz, tokian tokiko hizkera hiztun gazteengan finkatzen lagundu behar diegu, tokian tokiko hizkera lantzeak lagunduko baitu eskolako hizkera etxekoarekin eta hurbileko gizartearekin lotzen. Ikaslearendako arruntak diren solas eta erranairuek eskolan islarik ez badute, pentsatzen ahal dute estandarra eta etxekoa kode ezberdinak direla.

Argi dago, beraz, guztion zeregina dela euskalkia indartzea eta sustatzea, baita bertze euskalki bat dutenena edo euskalkirik ez dutenena ere, euskalkia ikasteko ahalegina ez bada, behinik behin euskalkiarekiko jarrera eta interesa erakuts dezaketelako. Azken finean, eskolan lantzen eta indartzen dugun jarrerak eragin handia izan dezake hiztunen eta familien jokaeran. Halaber, ezin dugu atzendu ezinbertzekoa dela euskalkia erabili nahi dutenek eroso eta natural erabiltzea, beti ere euskara zuzen erabiliz.

Leitzako Erleta ikastetxean euskalkiaren erabileraren gaineko eztabaida eta proposamena egin zuten Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Euskara zerbitzuetako teknikarien laguntzaz. Txosten batean egindako hausnarketak aski ongi laburtu zituzten eta, horretan oinarritua daude, hain zuzen, ikastetxeko eguneroko egoeretan zer eta nola egin azaltzen duten irizpide hauek:



Gela barruko erabilerari dagokionez, ahozko azalpen informalak euskalkian eman beharko liratekeela adostu zuten; azalpen formalak, aldiz, Eskolaurrean eta Haur Hezkuntzan euskalkian eman beharko lirateke, baina hortik aitzineko etapetan tokiko estandarra erabiltzea litzateke egokiena. Idatziz banatzen zaizkien oharrek, azalpenak, materiala... eskolan sortzen badira, tokiko estandarrean eman beharko lirateke eta, kanpotik hartuak badira, ordea, jaso diren moduan utzi.



Gurasoekiko harremanetan ere hainbat zalantza izan ohi dira. Guraso taldeekin elkartzean edo gurasoekin bakarkako bilerak izatean, irakasleak agertu nahi duen formaltasun mailaren arabera, tokiko estandarra nahiz norberaren euskalkia erabil liteke. Kontuan hartu beharko litzateke, bide batez, irakaslearen euskalkia arrunt ezberdina bada, bertakoek biziki eskertuko dutela egokitzen saiatzea. Bilera horietan banatzen den idatzizko materiala tokiko estandarrean idatzi beharko litzateke, baita gurasoei bidaltzen zaizkien oharretan ere.



Gelatik kanpo gaudelarik, jostaldian erraterako, euskalkia erabili beharko litzateke. Horrez gain, ospakizunak eta ekitaldiak egiten direlarik, megafonia bidez egiten diren azalpenak euskalkian edo tokiko estandarrean egin beharko lirateke, ekitaldiaren edo ospakizunaren ezaugarrien eta formaltasun mailaren arabera beti ere.

3. EUSKALKIAK ETA EUSKARA BATUA



Ikastetxe barneko funtzionamenduari dagozkion bileretan (klaustro bilerak, eskola kontseiluari dagozkionak...), adibidez, zilegi da norberak bere euskalkia edo tokiko estandarra erabiltzea. Bilera horietan banatzen diren idatzietan, berriz, bertan sortuak badira, tokiko estandarra erabili beharko litzateke, baina kanpotik jasoak badira, bere horretan banatzea ere egokia litzateke.



Akitzeko, eskolako edozein espaziotan paratzen diren kartel, ohar eta abarretan tokiko estandarra erabili beharko litzateke, ez bada bertako euskalkian bildutako esaldi, bertso edo lekukotasun zehatzen bat.

Jarraian, etapa bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuz, zer eta nola egin behar den ikusiko dugu:

ESKOLAURREA ETA HAUR HEZKUNTZA

Etap horietan bertako euskalkian egiten saiatzea arras garrantzitsua da, hortaz, irakaslea ez bada euskalkiduna, gutxienez sentiberatasuna eta errespetua erakutsi beharko luke bertako formen aitzinean. Maila horietan helburua da hizkuntza-ereduarekin lotura egitea eta, horrela, hizkuntzaren jabetze prozesua modu naturalagoan osatzea eta aberastea.

Hori dela eta, ahal den neurrian, eskolan erabiltzen dugun materiala bertako mintzora egokitu beharko litzateke. Horrez gain, euskara batuko forma batzuk ere sartzen has gaitzke, sinonimo gisa.

Duela urte gutxi arte uste izan da haur hizkerak²⁸ ez zuela lekurik izan behar eskolan. 0-3 urte bitarteko etapa hedatzearekin batera, ikusi da haur hizkerak laguntzen duela hiztun bilakatzeko bidean, batetik, haurrek modu errazagoan ikasten baitituzte solasak, azken finean, hizkuntzak berak mendeetan zehar garatu duen sistema horren bidez, haurrek erraz ahoskatzen dituzten solasak erabiltzen dituzte, normalean errepikapenetan eta onomatopeietan oinarrituak baitaude. Bertetik, lotura afektibo sendoa sortzen da hizkuntzarekiko, baina ez hori bakarrik, izan ere, hizketa modu hori goxotasuna edo afektibitatea adierazteko ere baliatzen dugu. Baztanen, zorionez, bertako mintzoarekin batera, haurrekin erabiltzen den erregistro afektibo hori ere gorde da eta eskolatik ere bultzatu beharko litzateke, baliabide ezin hobea baita haurrekin komunikatzeko.

3. EUSKALKIAK ETA EUSKARA BATUA

LEHEN HEZKUNTZA

Adin horretan haurren hizkuntza finkatua dago eta irakurketa eta idazketa lantzen hasten da. Behar-beharrezkoa da ikasleei irakastea ongi bereizten nola jokatu ahozko kodean eta idatzizko kodean. Izan ere, ezinbertzekoa da ulertzea ahozkoa eta idatzia ez direla berdinak, gainerako hizkuntzetan ere ez baita ahoskatzen den moduan idazten. Beraz, euskaraz ere, ez du zentzurik euskalkian ahoskatzen dugun moduan idazteak.

Ahozko kodean idatzizkoan baino malguago jokatuko dugu, idatzian, bertzeak bertze, hitzak osorik idatzi behar baitira, araei jarraitu... Hortaz, ahoz herriko edo etxeko euskararen ezaugarriak onartzen dituen eredia bultzatu beharko litzateke eta, horretarako, arrunt garrantzitsua da irakaslearen jarrera; haurrek etxean ikasitako hizkera zuzendu beharrean, dutena baloratzen eta bultzatzen irakatsi beharko lieke.

Gauza jakina da zeregin akademikoetako material gehiena euskara batuan dagoela, erdialdeko eta mendebaldeko formetatik hurbil normalean; irakasleak ezaugarri batzuk egoki ditzake, herriko formetara hurbilduz. Horrez gain, ongi legoke ikasleei ere galdetzea nola diren bertako formak, hartara, ikasleek ikusiko baitute haien hizkerak ere balio duela eta etxean ikasi dituzten formak zuzenak direla. Urte batetik bertzera egindakoa gorde eta hortik abiatzea litzateke egokiena, urtero hutsetik ez hasteko eta gero eta material osatuagoa izateko.

BIGARREN HEZKUNTZA

Derrigorrezko irakaskuntzaren hondarreko etapan, ikasleek erregistro ezberdinak behar bezala menderatu beharko lituzkete, konfiantza mailaren eta egoeraren arabera nola mintzatu behar den behar bezala bereizten.

Halaber, idatzian tokiko estandarra eta “batua” noiz erabili bereizi eta menderatu beharko lukete, ez baitute berdin idatziko eskualderako ari badira, Nafarroa osorako edo Euskal Herri osorako.

Akitzeko, ahozko kodean malguago izan daitezkeela jakin beharko lukete, baina formaltasun mailaren arabera, egoerak eskatzen duelarik, bertako forma osoak edo “batukoak” behar bezala erabili beharko lituzkete.

3. EUSKALKIAK ETA EUSKARA BATUA

3.3.1 Gutxieneko irizpideak

Euskalkiak eskolan tokia behar duela uste badugu, komenigarria litzateke ikasturte hasieratik gutxieneko irizpideak finkatzea. Baztango mintzoa zaintzeko eta bultzatzeko gutxieneko ezaugarri hauek hartu beharko genituzke kontuan²⁹:

- *Beste, hainbeste, ostirala, osteguna, bost, heste...* erabili beharrean **bertze, hainbertze, ortzirale, ortzegun, bortz, hertze...**
- *Ondo, hobeto, ederto, txarto...* idatzi beharrean **ongi, hobeki, ederki, gaizki** erabili.
- Mendebaleko eta erdialdeko formak erabili beharrean, Baztanen egiten direnak erabili³⁰:
ahaztu > **atzen**, aitona > **aitatxi**, amaitu > **akitu**, amona > **amatxi**, apurto > **hautsi**,
asko > **a(u)nitz**, atze(an) > **gibel(ean)**, aurre(an) > **aitzin(ean)**, bataz beste > **banaz bertze**,
behera > **beheiti**, berriro > **berriz**, entzun > **aditu**, erraz > **aise**, eseri > **jarri**,
eskerrik asko > **esker mila, mila esker, milesker**, ezer > **deus, ja**, gaixo > **eri**, gehiegi > **sobera**,
gora > **goiti**, gorde > **atxiki**, gutxi gorabehera > **guti goiti-beheiti**, hasiera > **hasmenta**,
hitz egin > **solas egin, solastatu, mintzatu**, hozka > **ausiki**, iritsi > **heldu, ailegatu**, irten > **atera**,
jai > **besta**, jarri > **paratu**, lapurto > **ebatsi**, laster > **fite, agudo**, noski, dudarik gabe > **doike**,
oso > **arras, arrunt**, ustez, antza denez > **naski...**
- Aditzetan **etorkizuneko formak** erabiltzean, **Nz akitzen diren aditzekin -EN** erabiliko dugu, ez
-KO: **emanen, joanen, janen, jakinen...**
- Ahalerazko perpausetan **-T(Z)EN AHAL** egiturak ere bultzatuko ditugu, baiezko nahiz ezeko
perpausetan: **etortzen ahal da, ez dut egiten ahal...**
- Denbora eta modu perpausetan **-(E)NEAN** erabili beharrean, **-(E)LARIK** baliatuko dugu: **etortzen
zarelarik egingen dugu.**
- Kausazko perpausetan **BAIT-** ere erabili: **ez ginen etxetik atera eguraldi txarra ari baitzuen.**
- Deklinabidean, destinatiboan **-RENTZAT** erabili ordez, **-(R)ENDAHO** erabili: **guretako, niretako,
lagunendako...**
- Prolatiboan **-TZAT** erabili beharrean, **-TAKO** erabili: **tontotako hartu zuten.**

29 Irakaskuntzari dagokionez, ongi legoke Baztango eskoletan zerrenda hau irakaslearen koadernoan paratzea, irakasle guztiak gutxieneko batzuk ikasi eta erabil ditzaten (edo gutxienez errespetatu ditzaten).

30 Ikusi 2.4 eta 3.3.2.1 atalak.

3. EUSKALKIAK ETA EUSKARA BATUA

3.3.2 Nora jo zalantzen aitzinean

Anitzetan idazteko orduan zalantzak izaten ditugu eta ez dugu jakiten non begiratu edo nora jo. Interneten gero eta material gehiago dago eta anitz dira erabil ditzakegun iturriak, baina, horietako bat, zalantzarik gabe, Euskaltzaindiaren webgunea da (<http://www.euskaltzaindia.net/eoda/argibideak>). Bertan, bertzeak bertze, arauak eta *Hiztegi Batua* kontsulta ditzakegu, jakiteko orduak nola idazten diren, zenbakietan *hirurogei* edo *hiru(re)tan hoge*i idazten ahal den, *bait-* nola idazten den, *solastu* edo *solastatu* idatzi behar den, *komun* edo *amankomun* idatzi behar den...

Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan* ageri diren hitzek arau maila dute, beraz betebeharrekoak dira. Hori dela eta, bertan ageri diren ikurrak hobeki ulertzeko eta informazioa behar bezala interpretatzeko, irizpide nagusien berri izatea komeni da:

Hiztegi Batuan Iparraldea eta Hegoaldea batzen dituzten formak hobetsi dira. Horregatik, ahal delarik, edozein euskaldunek ulertzeko moduko formei lehentasuna eman zaie.

Mailegu berrietan (bertze hizkuntzetatik heldu diren solasak), aldiz, nazioarteko formen alde egin da. Horrela, *kokodrilo* beharrean *krokodilo* erabiliko dugu euskara batuan, ingeleseko *crocodile* formaren antzera, hitzaren etimologiari lotzen baitzaizkio.

Hitz anitzek hainbat aldaera agertu dituzte tradizioko testuetan. Horrelakoetan bi modutan jokatu du Euskaltzaindiak:

- **Aldaera bat baztertu:** Baztertu behar den solasari * paratu diote eta ondoan e. [erabili] ikurraren ondoan forma egokia adierazi dute beltzez: amakomun* e. **komun**
